**EBAZPENA, 2025eko urtarrilaren 29koa Koordinazioaren eta Proiektu Estrategikoen idazkari nagusiarena, zeinaren bidez Lehendakaritzaren Dirulaguntzen Urteko Plana onartzen baita 2025eko ekitaldirako.**

**RESOLUCIÓN de 29 de enero de 2025, del Secretario General de Coordinación y Proyectos Estratégicos, por la que se aprueba el Plan Anual de Subvenciones de Lehendakaritza para el ejercicio 2025.**

Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legeak 6.1 artikuluan ezartzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak garatzen dituen dirulaguntzak aurretik Plan Estrategiko baten bidez planifikatu beharko dira, eta plan estrategiko horrek honako hauek jaso beharko ditu: lortu nahi diren helburuak, ondorioak, zer epetan lortu behar diren, zenbateko kostuak aurreikusten diren, zer finantzaketa-iturri dituzten eta jarraipena eta ebaluazioa egin ahal izateko planaren helburuekin lotuta dauden ekintzak eta adierazleak.

La Ley 20/2023, de 21 de diciembre, Reguladora del Régimen de Subvenciones establece, en su artículo 6.1, que la actividad subvencional que se desarrolle por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi deberá ser objeto de planificación previa mediante un Plan Estratégico que contendrá los objetivos, efectos que se pretenden, plazo necesario para su consecución, costes previsibles, fuentes de financiación, y las acciones e indicadores relacionados con los objetivos del plan que permitan su seguimiento y evaluación.

Lehendakaritzaren 2024-2027 eperako Dirulaguntzen Lau Urteko Plan Estrategikoak ezartzen duenez, hurrengo hiru urteetako bakoitzerako, hau da, 2025erako, 2026rako eta 2027rako, behin dagokion Urteko Aurrekontuen Legea onartu ondoren, 2024-2027 eperako Dirulaguntzen Lau Urteko Plan Estrategiko horri urtero onartzen den Dirulaguntzen Plan Estrategikoa erantsiko zaio.

El Plan Estratégico Cuatrienal de Subvenciones de Lehendakaritza 2024-2027 establece que, para cada uno de los tres años siguientes, esto es, 2025, 2026 y 2027, una vez se apruebe la correspondiente Ley de Presupuestos anual, se anexará a dicho Plan Estratégico Cuatrienal de Subvenciones 2024-2027 el correspondiente Plan Estratégico de Subvenciones que anualmente se apruebe.

Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren 01/15 Zirkularrak dirulaguntza bakoitza jaso ahal izateko ezinbestez egin behar diren Plan Estrategikoak osatzerakoan jarraitu beharreko argibideak ezartzen ditu.

La Circular 01/15, de la Oficina de Control Económico, establece las instrucciones encaminadas a la indispensable elaboración de los correspondientes Planes Estratégicos de subvenciones.

Horiek horrela izanik, eta Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 26ko 388/2024 Dekretuaren 9.2 artikuluak ematen dizkidan eskumenak erabiliz, honako hau

A la vista de lo cual, y en virtud de las competencias que me atribuye el artículo 9.2 del Decreto 388/2024, de 26 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional de Lehendakaritza,

EBAZTEN DUT:

RESUELVO:

Lehenengoa.– Lehendakaritzaren Dirulaguntzen

Primero.– Aprobar el Plan Estratégico Anual de

Urteko Plan Estrategikoa onartzea, 2025eko ekitaldirako. Plan Estrategiko hori ebazpen honen eranskinean jasota dago.

Bigarrena.– Ebazpen hau argitara eman dadila agintzea, bidezkoak diren bitarteko ofizialen bitartez, eta, betiere www.euskadi.eus webgunearen barruan Lehendakaritzari dagokion lekuan Ebazpen hau txertatuz.

Subvenciones de Lehendakaritza para el ejercicio 2025, que se incorpora como Anexo a la presente Resolución.

Segundo.– Ordenar que se dé publicidad a esta Resolución a través de los medios oficiales que procedan y, en todo caso, mediante su inserción en el espacio que corresponde a Lehendakaritza, en la web www.euskadi.eus.

Mikel Iriondo Bilbao
Koordinazioaren eta Proiektu Estrategikoen idazkari nagusia
Secretario General de Coordinación y Proyectos Estratégicos

Firmado por: SERIALNUMBER=IDCES-30665415K, SURNAME=IRIONDO BILBAO, GIVENNAME=MIKEL, CN=MIKEL IRIONDO BILBAO - 30665415K, OU=CERTIFICADO ELECTRONICO DE EMPLEADO PUBLICO, OU=LEHENDAKARITZA, O=EUSKO JAURLARITZA, C=ES
Fecha: 29/01/2025 17:24:00